

Natura eta biodibertsitatea

Naturaleza y biodiversidad



11. Babestutako azalera

Adierazle honek udalerrriaren babestutako azalera adierazten du. Datu hori kalkulatzeko, babes bereziko lurzoru ez-hiritargarrria hartzen da kontuan, azalera osoarekin alderatuta. Goranzko joera lortzea da helburua. «Babes bereziko lurzoru ez-hiritargarrria» sartzen dira:

- Garrantzi Komunitarioko Lekuak
- Natura-intereseko eremuak
- Fauna babesteko eremuak
- Balio agrologiko handiko lurrak eta ustiapen estrategikoak
- Babes bereziko eremuak
- Lurpeko urak babesteko esparruak
- Behin eta berriz urpean geratzen diren eremuak
- Geologia-intereseko eremuak

Kontuan izan behar da, batzuetan, babes bereziko eremuen litezkeen sailkapen batekin baino gehiagorekin identifikatuta dauden hainbat lurralde eremu egon daitezkeela, eta ondorioz, bikoizketa horiek aintzat izan behar dira, neurtzen ari den azalera bi aldiz ez gehitzeko. Zentzu horretan, "azalera bikoiztua" izendatu da "bitan" babestutakoa, azalera hori guztizkotik kentzeko, babes bereziren bat duen lurralde-eremua adierazten duen adierazlea lortze aldera.

11. Superficie protegida


Este indicador representa el porcentaje de superficie municipal protegida, y se calcula considerando el suelo no urbanizable de especial protección con relación a la superficie total, siendo la tendencia deseable el aumento. Dentro de la clasificación «suelo no urbanizable de especial protección» se incluyen:

- Lugares de Importancia Comunitaria
- Áreas de interés natural
- Áreas de protección de la fauna
- Terrenos de alto valor agrológico y explotaciones estratégicas
- Zonas de especial protección
- Ámbitos de protección de aguas subterráneas
- Áreas inundables de recurrencia
- Áreas de interés geológico

Ha de tenerse en cuenta que, en ocasiones, puede haber determinados ámbitos del territorio que se encuentran identificados con más de una de las posibles clasificaciones de zonas de especial protección, por lo que esos solapamientos deben ser tenidos en cuenta para no sumar doblemente la superficie objeto de medición. En este sentido, se ha denominado como "superficie solapada" el espacio "doblemente" protegido, al objeto de restar dicha superficie del total, con el objeto de obtener el indicador que indica el área del territorio que tiene alguna protección especial.




Garrantzi komunitarioko lekuak Lugares de importancia comunitaria	(a)= 253,98 ha
Natura-intereseko eremuak Áreas de interés natural	(b)= 48,27 ha
Fauna babesteko eremuak Áreas de protección de la fauna	(c)= 540,71 ha
Balio agrologiko handiko lurrak eta ustiapen estrategikoak Terrenos de alto valor agrológico y explotaciones estratégicas	(d)= 327,61 ha
Babes bereziko eremuak Zonas de especial protección	(e)= 120,40 ha
Lurpeko urak babesteko esparruak Ámbitos de protección de aguas subterráneas	(f)= 244,71 ha
Behin eta berriz urpean geratzen diren eremuak Áreas inundables de recurrencia	(g)= 188,12 ha
Geologia-intereseko eremuak Áreas de interés geológico	(h)= 597,02 ha
"Azalera bikoiztua" "Superficie solapada"	(i)= 642,77 ha
Guztiko azalera Superficie total	(j)= 6.094,30 ha
$\frac{(a+b+c+d+e+f+g+h-i)}{j} \cdot 100$	
Babestutako azaleraren portzentajea: % 27,53	Porcentaje de superficie protegida: % 27,53





Datuak, Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 2010eko ekaineko behin betiko onespeneraren ondoriozko azalerari dagozkio. Babestutako lurzorua ren portzentajea ez da 2008. etik ia aldatu.

Los datos obtenidos en 2010 corresponden a la superficie resultante de la aprobación definitiva del Plan General de Ordenación Urbana, manteniéndose el porcentaje de suelo protegido sin apenas variación desde 2008.



- Garrantzi komunitarioko lekua
Lugares de importancia comunitaria
- Babes-irudiak dituzten eremuak
Áreas con figuras de protección

Iturria: Donostiako Udaleko Hirigintza Saila
Fuente: Departamento de Urbanismo del Ayuntamiento de San Sebastián

MIRAMONGO BASOA

Aieteko Lantxabe auzo elkartearen ekimenez, Udalak, Miramongo Basoa inauguratu zuen 2017. urtean. 60 hektareako azalera duen gunea da eta Donostiako mendixka batean dago kokatua, saihebidia (GI-20) eta Oriamendiko eta Miramongo pasealekuen (Illunbe) artean, Miramongo Parke Teknologikoa dagoen lekuan. Basoaren orografia Mando Erreka eta Parke Errekaren ibarrek mugatzen dute. Eremu hori ez zegoen prestatua pertsonak bertatik igarotzeko eta udaletxearen esku-hartzea eskatu izan da behin baino gehiagotan.

BOSQUE DE MIRAMÓN

A iniciativa de la asociación de vecinos Lantxabe de Aiete, el Ayuntamiento inauguró en 2017 el Bosque de Miramón. Una zona de 60 hectáreas de superficie situada en una de las colinas de San Sebastián, ubicada geográficamente entre la variante (GI-20), el paseo de Oriamendi y el paseo de Miramón (Illunbe) donde está el Parque empresarial tecnológico de Miramón. Su orografía está determinada por las vaguadas de Mando Erreka y Parke Erreka. Este ámbito era una zona poco permeable al tránsito humano y sobre la que se llevaba tiempo reclamando una intervención municipal.



Basoa landare aldetik birsortzeko sasiak eta espezie inbadi-tzaileak ezabatu dira bertako espezie-aleen birpopulaketa-ren bitartez. 17.604 m²-ko lursailean belar-sastrakak kendu dira eskuz eta makinekin eta 104 akazia eta 91 *cupressocyparis leylandii* Galesko zipres hibrido ale moztu dira; ho-rrez gainera, hainbat gune basotsutan, akazia gazteak, hal-tzak eta ereinotzak kendu dira eta 3.000 haritz, basagerezi, landa-astigar, gaztainondo, hurritz, intsusa eta zuhandor ale landatu. 251 sagarrondo ere landatu dira, handik gertu dagoen Katxola baserrian artisau-sagardoa egiteko lehen-gaia edukitzeko; XVIII. mendeko baserri hau baserri-dolare bakarrenetakoa dugu eta sagardoa egiteko prestatua dago. Zuhaitz batzuetan habia-kutzak jarri dira hegaztien-hazkun-tza sustatzeko (kaskabeltzak, amilotxak, gerri-txoriak, garra-poak) eta babesleku txikiak ere jarri dira triku arrunt, muxar gris, hontz, saguzar eta urubientzat.

Paseatzeko lekua errazte aldera, pista-, bide-, bidexka- eta bidezidor-sarea eraiki da inguruan, txoko guztietaraino iritsi ahal izateko. Ibar sakonak gainditzeko, Mando Errekan be-hera altzairu galvanizatuzko 64 metroko pasarela berri bat jarri da, lehendik zeuden bie gehituz (Policlinikakoa eta An-fiteatrokoa), eta horrela, modu eroso eta seguruan igaro dai-teke Aiete eta Illunbe artean. Birgaitutako beste puntuetako bat Parkea Errekako ura jasotzen duten presa eta urmaela dira; bertatik hasten da lehenengo bide biribil didaktikoa.

Espazioa bisitatzeko 4 sarrera daude; guztietan daude azal-penak ematen dituzten panelak, eta barrualdean, oreka naturala hautsi gabe, hainbat seinale daude bisitariari la-guntzeko. Aietetik sar daiteke, Katxolatik eta Erramunenetik, eta Anfiteatrotik; Illunbetik, Policlinicarako lazoen bidean bi "aterekin", Policlinicatik, Enpresa Parkea eta Mikeletegiko pasarelatik; Ikusi-Mikeletegitik- saihebidetik-, eta Errota-txotik.

Aieteko Bizilagunen Elkartea (Lantxabe) bisita gidatuak antolatzen ditu Miramongo basoko bide zaharretan zehar, egun seinalatuak eta identifikatuak. Bisitak katxola baserrian egiten diren jarduerekin osatzen dira.

Para regenerar vegetativamente el bosque, se han elimina-do zarzas y especies invasoras mediante una repoblación de ejemplares de especies autóctonas. Se han desbrozado 17.604 m² de terrenos de forma manual y mecánica, se han talado individualmente 104 acacias y 91 ejemplares de '*cu-pressocyparis leylandii*', un ciprés híbrido del sur de Gales, actuando también en varias zonas boscosa para eliminar acacias jóvenes, alisos y laureles y plantar 3.000 ejempla-res de robles, cerezos silvestres, arces campestres, castaños, avellanos, saucos y cornejos. También se han plantado 251 manzanos que darán materia prima para elaborar sidra artesanal en el cercano caserío Katxola del siglo XVIII, uno de los pocos caseríos lagar que se conservan, contando con instalación para la producción de sidra. También se han colocado en algunos árboles diferentes tipos de cajas-nido para potenciar la cría de aves (carboneros, herrerillos, aga-teadores, trepadores azules) e incluso pequeños refugios para el erizo común, el lirón gris, la lechuza, el murciélago o el cárabo.

Con el fin de facilitar el paseo se ha acondicionado por todo el espacio una red de pistas, caminos, sendas y sen-deros que permiten recorrer y acceder a todos los rincones. Para salvar las profundas vaguadas, aguas abajo de Mando Erreka se ha instalado una nueva pasarela de acero galva-nizado de 64 metros, que se suma a las dos existentes, las de Policlínica y Anfiteatro y permiten un tránsito cómodo y seguro entre Aiete e Illunbe. Otro de los puntos regenera-dos es la presa y estanque que recoge las aguas de Parkea Erreka que es desde donde nace el primer camino circular didáctico.

Para visitar el espacio se han establecido 4 entradas; en to-das ellas hay instalados paneles explicativos. En el interior, sin romper el equilibrio natural, hay diferentes señaléticas para ayudar a quien lo quiera visitar. Se puede entrar desde Aiete por Katxola y Erramunene, y Anfiteatro; por Illunbe, en el vial de los lazos a Policlínica con dos "puertas", por Poli-clínica, pasarela al Parque empresarial y Mikeletegi, desde Ikusi-Mikeletegi por el camino de circunvalación y Errotatxo.

Desde la Asociación de Vecinos de Aiete, Lantxabe, se vie-nen organizando visitas guiadas por los viejos caminos del Bosque de Miramón, ahora señalados e identificados, con actividades complementarias en el caserío Katxola.

Informazio gehiago:

Aieteko Bizilagunen Elkartea

Más información:

Asociación de Vecinos de Aiete